

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

651

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2021eko urtarrilaren 25ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez behin-behineko langile bat izendatzen baita Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailean.»

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko urtarrilaren 25eko Aginduaren argitalpenean (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA, 21. zk.). Agindu horren bidez, behin-behineko langile bat izendatzen da Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailean. Horrenbestez, jarraian zuzendu egiten dira hutsak:

2021/531 (1/1) orrialdean, gaztelaniazko bertsioan, honela dio:

«Primero.– Nombrar a Dña. Agurtzane Rojo Gomez, como Asesora de Internacionalización, código 5294, dotación 1, nivel Director, en el Departamento de Cultura y Política Lingüística.»

Baina honela esan behar du:

«Primero.– Nombrar a Dña. Arantzazu Rojo Gómez, como Asesora de Internacionalización, código: 5294, dotación: 1, nivel: Director, en el Departamento de Cultura y Política Lingüística.»